

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 137/2021 Erabakia, martxoaren 16koa. Onestea Euskadiko Landa Garapenerako Programaren (2015-2020 plangintzaldia) esparruan nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen 2021eko deialdia**

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko dirulaguntzen oinarri arauak onetsi ziren (zeinak jasota baitaude M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan) Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan.

Geroago, Foru Kontseiluaren maiatzaren 15eko 22/2018 Foru Dekretuaren bidez, aipaturako oinarri arautzaileak zati batean aldatu ziren.

Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuan badago partida bat, 40.1.01.46.02.781.00.05 "Ureztaketa sistemak modernizatzeko dirulaguntzak. Deialdi berria" izenekoa, zeina 850.000,00 euroz hornituta baitago, bi urterako, ureztaketa sistemak modernizatzeko dirulaguntzak emateko. Hortaz, laguntza horien deialdia onetsi behar da 2021erako.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onespena ematea Landa Garapenerako Programaren babesean nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen 2021eko deialdiari, zeinen ehuneko 53 LGNEFek finantzatuko baitu, ondoren zehazten denaren arabera:

– Eskerak aurkezteko tokia eta epea: Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra. Hori ez da oztopo izango Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko. Eskerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Ureztatzaile elkarte eskatzaileek gehienez ere bi jardueratarako aurkeztu ahal izango dute laguntza eskaera, eta lehendabizi adierazitako jarduerak duela lehentasuna ulertuko da.

Eskerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, haiekin batera, laguntzaren oinarri arautzaileen arabera onetsitako agiriak.

– Kreditu erreserba: 850.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko "Ureztaketa sistemak modernizatzeko dirulaguntzak. Deialdi berria" izeneko 40.1.01.46.02.781.00.05 partidaren kontura, honela banatuta urtez urte:

– 2021. urtea: 350.000,00 euro. Xedapen erreferentzia: 21.1.21.105.538/000.

– 2022. urtea: 500.000,00 euro. Xedapen erreferentzia: 21.3.22.105.22/000.

– Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein ziozengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere. Haztatze koefizienteak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 12ko 51/2016 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritako hautapen irizpideei aplikatu ahal zaizkienak:

Deialdi honetan, ondorengo taulako haztapen koefizienteak aplikatuko dira, guztizko puntuazioa lortzeko.

| IRIZPIDEA                                                 | HAZTATZE KOFIZIENTEA |
|-----------------------------------------------------------|----------------------|
| Ura aurrezte eta ur erabileraren eraginkortasuna hobetzea | 2                    |
| Azalera                                                   | 1                    |
| Modernizatzearen/hobetzearen maila ureztatzaile elkartean | 1                    |
| Ingurumenari egiten zaion ekarpena - helburuak            | 1                    |

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Hirugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 16a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**